# FEDERACIÓN ALAVESA DE AJEDREZ

## Campeonato Juvenil y Cadete de Álava de Individual 2026 - 2027

## Días 15, 16 y 17 de Enero.

La Federación Alavesa de Ajedrez convoca el Campeonato Juvenil y Cadete 2027, que se celebrará los días 15, 16 y 17 de enero en los Frontones Beti Jai de Mendizorroza, en Vitoria-Gasteiz. El torneo será valedero para ELO FIDE.

### 1. PARTICIPACIÓN

Podrán participar todas las/os jugadoras/es federadas/os en la Federación Alavesa de Ajedrez, nacidas/os entre los años 2009 y 2015, ambos inclusive.

### 2. INSCRIPCIÓN

La inscripción deberá realizarse antes de las 20:00 horas del lunes 28 de diciembre de 2026, enviando un correo electrónico a falajedrez@gmail.com o, preferiblemente, a través del club al que pertenezca el jugador o jugadora, enviando todos los inscritos a la vez.

### 3. ORGANIZACIÓN Y COMITÉ DE COMPETICIÓN

La organización del campeonato corresponde a la Federación Alavesa de Ajedrez.
El comité de competición estará formado por representantes de distintos clubes y resolverá cualquier situación no contemplada en las presentes bases, conforme a la normativa de la FIDE.

### 4. SISTEMA DE JUEGO, SALA DE JUEGO Y CALENDARIO

La sala de juego será el Frontón Beti Jai de Mendizorroza.
El número de rondas y el sistema de competición se determinarán en función del número de jugadores inscritos, conforme a los siguientes criterios:

- 5 o 6 jugadores/as: Liga round robin, a vuelta simple.
- Entre 7 a 15 jugadores/as: Suizo a 5 rondas.
- Más de 15 jugadores/as (16 en adelante): Suizo a 7 rondas.

El torneo se disputará conforme al siguiente calendario:
En caso de liga a vuelta simple o suizo a 5 rondas:

- Sábado 16 de enero: 10:00 / 16:00
- Domingo 17 de enero: 9:00 / 12:00 / 17:00

En caso de suizo a 7 rondas:

- Viernes 15 de enero: 18:00
- Sábado 16 de enero: 9:00 / 12:00 / 17:00

- Domingo 17 de enero: 9:00 / 12:00 / 17:00

## 5. RITMO DE JUEGO, TIEMPO DE ESPERA Y BYES

El ritmo de juego será de 60 minutos + 30 segundos de incremento por jugada, desde el primer movimiento. Se considerará pérdida por incomparecencia si un jugador no se presenta 30 minutos después del inicio oficial de la ronda. Una ausencia injustificada supondrá la descalificación automática del torneo. Dos ausencias, justificadas o no, supondrán la eliminación del torneo. Respecto a los byes:

- En caso de sistema suizo: Se podrá solicitar 1 bye de 0,5 puntos en torneo a 5 rondas. Se podrán solicitar hasta 2 byes de 0,5 puntos en torneo a 7 rondas. No se concederán byes en las dos últimas rondas (si son 5 rondas, esto solo aplica a la última ronda).
- Liga simple: No habrá concesión de byes.

Los byes de la ronda 1 se pedirán al correo de la Federación, antes del 14 de enero. Para el resto de rondas, se solicitarán al árbitro, antes de acabar la ronda previa a solicitar el bye.

## 6. DESEMPATES

En caso de empate a puntos, en la clasificación se aplicarán los siguientes criterios por orden:

1) Resultado particular (en caso de empate entre 2 participantes)
2) Buchholz -1 (Quitando el peor rival)
3) Buchholz total
4) Mayor número de victorias (WON)
5) Mayoría de partidas con piezas negras.

## 7. PREMIOS Y CLASIFICACIÓN PARA EL CAMPEONATO DE EUSKADI

Una vez finalizado el torneo, se dividirá la clasificación general para determinar a las personas clasificadas en categoría Juvenil (Sub-18) y Cadete (Sub-16), así como (Sub-14), para el Training Promesas, que representarán a Álava en los Campeonatos de Euskadi 2027.

- Habrá un Trofeo para los tres primeros clasificados entre toda la categoría unificada. Es decir, trofeos para el campeón/a Juvenil, Cadete e Infantil (sub 14).
- En cada categoría (Juvenil, Cadete y Training) se clasificarán para el Campeonato de Euskadi los tres primeros clasificados, debiendo figurar entre ellos al menos una jugadora femenina. En caso de ser campeona absoluta de una categoría, una jugadora femenina, la plaza femenina será ocupada por otra participante.
- Se entregará al campeón de las categorías Cadete y Juvenil, inscripciones gratuitas, al III. Open Internacional Ciudad de Vitoria - Gasteiz, en caso de que llegue a celebrarse.

## 8. PROTECCIÓN DE DATOS Y ACEPTACIÓN

La participación en el torneo implica la aceptación de estas bases y la autorización para publicar datos personales (nombre, resultados, fotos, etc.) en medios de comunicación y redes sociales vinculados al evento, y que sean de la Federación.

**ARABAKO XAKE FEDERAZIOA: 2026-2027KO ARABAKO BANAKAKO GAZTEEN ETA KADETEEN TXAPELKETA**
**Urtarrilaren 15ean, 16an eta 17an**

Arabako Xake Federazioak 2027ko Gazteen eta Kadeteen Txapelketa antolatzen du. Txapelketa urtarrilaren 15ean, 16an eta 17an jokatuko da, Gasteizko Mendizorrotzako Beti Jai pilotalekuetan. Txapelketa FIDE ELOrako baliagarria izango da.

## 1. PARTE-HARTZEA

Arabako Xake Federazioan federatuta dauden eta 2009tik 2015era bitartean jaiotako jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute, bi urteak barne.

## 2. IZEN-EMATEA

Izen-ematea 2026ko abenduaren 28ean, astelehena, 20:00ak baino lehen egin beharko da, mezu elektroniko bat bidaliz helbide honetara: falajedrez@gmail.com, edo, ahal dela, jokalariaren klubaren bidez, izen-emate guztiak aldi berean bidaliz.

## 3. ANTOLAKETA ETA LEHIAKETA BATZORDEA

Txapelketa Arabako Xake Federazioak antolatuko du.
Lehiaketa Batzordea klub desberdinetako ordezkariek osatuko dute, eta oinarri hauetan jasota ez dauden egoerak ebatziko ditu, FIDEren araudiaren arabera.

## 4. JOKO-SISTEMA, JOKALEKUA ETA EGUTEGIA

Jokatzeko aretoa Mendizorrotzako Beti Jai pilotalekua izango da.
Txanda kopurua eta lehiaketa-sistema izena emandako jokalarien kopuruaren arabera zehaztuko dira, honako irizpide hauen arabera:

- 5 edo 6 jokalari: itzuli bakarreko liga.
- 7 eta 15 jokalari artean: 5 txandako sistema suitzarra.
- 15 jokalari baino gehiago (16tik aurrera): 7 txandako sistema suitzarra.

Txapelketa honako egutegi honen arabera jokatuko da:

**Itzuli bakarreko liga edo 5 txandako sistema suitzarra izanez gero:**

- Larunbata, urtarrilak 16: 10:00 / 16:00
- Igandea, urtarrilak 17: 9:00 / 12:00 / 17:00

**7 txandako sistema suitzarra izanez gero:**

- Ostirala, urtarrilak 15: 18:00
- Larunbata, urtarrilak 16: 9:00 / 12:00 / 17:00
- Igandea, urtarrilak 17: 9:00 / 12:00 / 17:00

## 5. JOKO-ERRITMOA, ITXAROTEKO DENBORA ETA *BYE*AK

Joko-erritmoa 60 minutukoa izango da, gehi 30 segundoko gehikuntza jokaldi bakoitzeko, lehen mugimendutik aurrera. Txanda ofizialki hasi eta 30 minutu igaro ondoren aurkezten ez den jokalariak partida galduko du agertu ez izanagatik.

Justifikaziorik gabeko absentzia batek txapelketatik automatikoki kanporatzea ekarriko du. Bi aldiz huts eginez gero, justifikatuta egon ala ez, jokalaria txapelketatik kanporatuko da.
*Bye*ei dagokienez:

- **Sistema suitzarrean:** 5 txandako txapelketan 0,5 puntuko *bye* bat eskatu ahal izango da. 7 txandako txapelketan, gehienez, 0,5 puntuko bi *bye* eskatu ahal izango dira. Ez da *bye*rik emango azken bi txandetan (5 txandako txapelketan, azken txandan soilik aplikatuko da muga hori).
- **Itzuli bakarreko ligan:** ez da *bye*rik emango.

1. txandako bye-ak Federazioaren helbide elektronikora eskatu beharko dira, urtarrilaren 14a baino lehen. Gainerako txandetakoak arbitroari eskatu beharko zaizkio, bye-a eskatu nahi den txandaren aurreko txanda amaitu baino lehen.

## 6. BERDINKETAK HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Puntuetan berdinketa gertatuz gero, sailkapenean honako irizpide hauek aplikatuko dira, ordena honetan:

1. Elkarren arteko emaitza (bi parte-hartzaileren arteko berdinketa dagoenean).
2. Buchholz -1 (aurkari okerrena kenduta).
3. Buchholz osoa.
4. Garaipen kopuru handiena (WON).
5. Pieza beltzekin jokatutako partida kopuru handiena.

## 7. SARIAK ETA EUSKADIKO TXAPELKETARAKO SAILKAPENA

Txapelketa amaitutakoan, sailkapen orokorra banatuko da, Gazteen (18 urtez azpikoak), Kadeteen (16 urtez azpikoak) eta Training Promesas kategoriako (14 urtez azpikoak) jokalari sailkatuak zehazteko. Jokalari horiek Arabaren ordezkari izango dira 2027ko Euskadiko Txapelketetan.

- Kategoria bateratuko lehen hiru sailkatuei garaikurrak emango zaizkie. Hau da, garaikurrak emango zaizkie Gazteen, Kadeteen eta Infantil (14 urtez azpikoak) kategorietako txapeldunei.
- Kategoria bakoitzean (Gazteak, Kadeteak eta Training) lehen hiru sailkatuak Euskadiko Txapelketarako sailkatuko dira, eta horien artean gutxienez emakumezko jokalari batek egon beharko du. Kategoria bateko txapeldun absolutua emakumezkoa bada, emakumezkoen plaza beste parte-hartzaile batek beteko du.
- Kadeteen eta Gazteen kategorietako txapeldunei Gasteizko Nazioarteko III. Open Txapelketan izena emateko doako inskripzioa emango zaie, txapelketa hori antolatzen bada.

## 8. DATUEN BABESA ETA OINARRIEN ONARPENA

Txapelketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea eta datu pertsonalak (izena, emaitzak, argazkiak eta abar) ekitaldiarekin eta Federazioarekin lotutako komunikabideetan eta sare sozialetan argitaratzeko baimena ematea dakar.